

BIZKAIA

Aita Onaindia

**BURGESENA ETE DA GURE
EUSKEREAA?**

Gaur, gauza asko ditugu modan sarturik. Oneitan bat, udan, oporaldietan be bai, neska-mutillak orra naiz ara joan eta taldeka ikasi ta jolasari emotea. Emen Larrea'n urteak dirala, olakoak izan doguz: lau edo bost txanda urtearen barruan. Azkenengoa, Iñaki deunaren biaramonetik Andra Mari bezperaiñokoa izan genduan. Irurogei bat batu ziran guztira, bizardunak ainbakoak, gitarra-jotzailleak, disko-zaleak, eta abar; batzuk euskeraz ikasten, beste batzuk eusko edestia, ekonomia ta antzekoak; ikasi ta ikasi egun gogorrak izan zituen, egia esateko.

Noizik bein, buruak pizkat arintzearren, itzaldiak be, arek eta onek emonda, izan ebezan; ondoren eztabaida ta mutur-joka latzak be sorturik. Tika-mika ta itz-auzi orreik zirala-ta, kezta ta dudaren batzuk barruan sentidurik, ikastaroa amaitzerakoan, gazte bat urreratu yatan neure lan-gelara, argitasun billa nunbait, itzaldi baten sortutako zalantzak uxatu nairik.

Euskalerriaren izate, egoera ta naste sakonak sarri aizatu ei zituen



euren jardunaldietan. Gure oitura, dantza, musika, lege, barru-bizitza ta ingurukoak be aztertuak izan ziran, urrean. Eztabaida ta jakinaia bear dira olako batzarretan. Besteak beste, kezka bat, obeto, arantza bat eukan olako batzar batean entzunak biotzean josita. Gazte batek, euskera ikasteari garrantzia iñausi nairik, euskera, gure izketa, burgesena zala esan ei eban. Autortze onek, uste bagean arturik, erdi-konkor eta lurmendua itxi ei eutson barrua. Kezka ori askatzera etorren nigana.

* * *

—Zuk jakingo dozu, antza, «burges» itzak zer adierazo nai dauan. Sarritan entzuna dot nik, baiña ez dakit ondo bere mamiña zein dan; ez dakit zearo zer esan nai dauskun.

—Ez dozu errez be. Istori luze-koa da itz au, ta «burgesa» esaten yakon erakundea baitik bat. Itzari gagokiozala, alemanetik dator ziur asko; doitxeraz «burgs» dozu, gero latiñak artua —«burgus»—; uritxikia esan nai dau. Euskerak badau au adierazteko itz polita, «baserria», uritik zerbait aldenduta dagoan basoko erria. Olakoak ziran lenago —Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n beintzat— gure erritxorik geienak: uri nagusiagoetatik apur bat asago egozan, eta gaur be orrela daukaguz.

—Orrek ba al dau zer-ikusirik gaurko burges-kontuaz?

—Nik baietz uste dot. Geiegi luzatu barik, auxe esango dautzute: ementxe bertan, Zornotza'n eta Etxano'n, ainbat auzune dituzu: Beroa, Aldana, Ergoien, Arazosa, Kaptia, Epaltza, Alaka, Larrabe, Astepe, Leginetxe, Montorra, Deandi, Euba, Orue, Berna, Bernagoiti; guztiok dozuz Zornotza'ko auzune edo baserri, uri-biotzetik zerbait baztertuak. Erriz ta eleizaz ia gauza bardiña izanagaitik, euren bizimodu apartekoa eroien lenago batez be lenago baserri bakotzak eukan bere bizitza aparta; bear eben guztia bertan eukien bertakoak: laba bat, ogia egiteko; ola bat, baserrian premiñazko ziran atxur, aizkora, igitai, are, golde, nabar, nabasai ta beste solo tramankulu guztiak osotzeko; zapatagiñak, zapata ta oiñetakoak egiteko; euleak, liñoazko miesa ta soiñekoak ariltzeko; buztarri-gilleak, bei ta idientzat buztarriak altz eta pago-zurez modatzeko; otzara-gilleak, ezkur, gaztaiña, sagar ta gaiñerako igali ta ortuariak zaran, zimera ta saskiak eioteko; kaiku-egilleak, artzaiñentzat esne-ontziak antolatzeke. Labur: baserriarrak euren bizimodurak bear eben dana eukien bertan, eura eginga.

—Beargiñok, gaiñera, bakotzak euren bere arloa, ta sarri, zer-edo zentzuan batez be, euren etorki

ta irabaziak zaintzeko, taldeka alkartu oi ziran.

—Alkarte orrei euskeraz «aro», edo-ta, «baltsa» esaten yaken. Alkarte orreik, edo antzekoak, etziran gure artekoak bakarrik: mundaian gauza bardin samarrak daukaguz, lur-giroak eta bizi-moldeak sortu-azotakoak. Gizasemeak ugaritzen asi ta laster, Euskalerrian lez bizi bearra eben leku guztietan, antzeko alkarteak sortu zituen gizonak.

—Giza-maillak be, orraitiño, antxiñatik dira ezagunak.

—Errege ta agintariak, eta leiñargiak, «nobleak», odol-garbi-koak, esate baterako, langille orreik baiño gorago egozan euren eritxiz; antxiña bateko nobleak ez eben lanik egin nai, lan egitea jopu, morroi ta menpeko izatea zalakoan. Emendik jagi ziran Europa'n eztabaida ta burrukak: Erdi-Aroan amairik bako istilluak izan ebezan agintari ta odol-garbikoak, berago egozan esku-langilleakaz.

—Ordukoak ez dira, ba, feudo-jaunak be?

—Bai, naiz-ta osoan bardiñak ez izan. Euskal errian, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n ezta olakorik izan; jauntxoak bai, jauregi ederrak eukazan, baiña feudalik ez, Europa'ko beste errialdeetan ezagutzen doguzan lako izen, ondasun eta aginpidez beintzat. Emen odol-garbikoak geiago izan dira, edo izan

gara. Gaur be, nok ez dau izan nai edu ortakoa? Amaika ba-dabiltz, beiñik bein, euren abizenen suster billa!

—Nik orain jakin nai neukena auxe da: nortzuk diran euskal errian «burgesak». Ez bakarrik euskerari begira; lantegi ta fabriketan be sarri esan oi yako edozeiñi: ur-lia «burgesa» da, sandia be bai. Ta ez dakigu zer erantzun.

—Gaur, nor dogun «burgesa»? Mitu antzeko itza dozu au. Nortzuk diran gaur gure artean «burgesak» eta «proletarioak»? Ipuin eder bat dirudi. Ona nik neure begiz ikusia: nik urtero eratu daroat ara edo ona ibillaldi bat, maiatzaren azken-erantza geienik, eta ibillaldi ontarra datozenak danetatik dituzu, dendariak, fabrika bear egiten dabenak, emen neskame dagozan Albazete'ko neskatillak, eta abar. Datorren urtean, esaterako, Frantzia'n Italia'n, Suiza'n zear ibilteko as-mua dogu; eta lengo batean, ibillaldi ontako egitaraua praille bati erakutsi neutsanean, arpegira bota eustan: «Ori, burgesen ibillaldia dok». Uda onetan, Bilbao'ko Andra Mari jaiak zirala-ta, andik izan nintzan baten, Zaballburu ta G. Balpar-da kalean ezin eikean ibilli jenteren jentez; zezenetara joian jentetza ikaragarria, eta etzan kapeladunetarikoa be, gure baserriar eta langille jentea baiño. Arriaga'tik pasakeran, an egozan sarreren pre-

zioak be: **Gerizpetan**, 1.440 pezeta; **eguzkitan**, 204 pezeta.

—Egia diñozu: gaur ez dakigu euskal errian nor dan nor, nor dan aberatsa ta nor ez dan. Len kapeladunak ziran aberatsak; baiña gaur edozeiñek daroa kapelea, naiz korbatea, naiz bizar luzea. Eta, zer jazo lenagoko esku-langillekaz?

—Au da nik dakidana. Aldikada bateko esku-langille areik, lan eta lan, aberats-aberats egin ziran, toki askotan beiñik-bein. Baita indartsu be. Eta apurka apurka, danak alkarturik, goikoai, naiz errege naiz odol-garbikoai gerra egiteraiño eldu ziran; orrela, errialde askotan, aginpideagaz ere jabeturik. Eta emen daukazuz burgesak aginduten; toki askotan, gaiñera, erri arteko industri ta komertzio guztia euren esku eukien. Emendik sortuzan azkenez tailler ta fabrika txikietako ugazabatza; emendik baitazan azkenez taille ta fabrika txikietako ugazabatza; emendik baita sortu yakuzan dirua ta aberastasunak. Gaur «burgesa» deritxoguzozer ekarteko gauza dan industri baten jabe danari.

—Ontan da-ditugu maillak, ezta?

—«Burgese» izatea iru zatitan banantzen da gizarte-arauz: **goiko burgesak**, **erdikoak** eta **beekoak**. Gorengo mailla kapitalistak osotzen dabe, eta emen sartzen dira industri-gizonak, sal-erosle aundiak, bankeruak, diru-erabiltzaille, aberats

okitu ta konpañi aundietako zuzendariak. Erdi maillakoak dituzu, gai aitorretan sartuak, goi-teknikuak ola ta fabrika aundietako buru artean, atzenez, burgesi ta langilleriaren artean dagozanak dozuz; au dala-erosle txikiak, esku-langintzan diarduenak, dendariak, enpresa batego ofizinan lan dagienak, laguntzailleak, kontu-gilleak, erdi maillako teknikuak...

—Edozein maillara jota be, olakoak ugari ditugu gaur euskal errian. Diru askoren jabe diranak ez dira gitxi, ezta dendari ta antzerkoak diruz polito dabilzanak be.

—Bee-maillako burgesak, esan dautzut, doi-doi langilleriaren maillan aurkitzen yatzuz. Beargin asko dira gurean egunero irabazten daben aloger eta lansariagaz, dendari batek eskuratzen dabenagaz baiño obeto, bizi diranak: langille soillak ez dauka, adibidez, dendariak daukan zerga edo inpesturik; ezta ainbeste arrisku be. Iru-lau seme-alaba dituan familiak, egia, bere estukura ta larrialdiak ikusi bear dauz sarri; baiña «burgesak» esan oi yaken beste mailla ortakoak be, gorriak sarri ikusi daroez.

—Zeri deritxogu, orduan, langilleria? Ola, fabrika edo taillerretan bide ta mendietan, itxaso naiz baserrietan lan dagienai; orrexek dira bene-benetako langilleak. Beraz lenagokotik gaurkora alde aundia agiri danez.

—Gatozan arira, ta esan beist: nortzuk ditugu euskal errian «burgesak» eta nortzuk langilleak, Marx'en itzez esanik, «proletarioak»?

—Oian itsu batean sartu nozu, adiskide. Ez dakit zelan askatu itaun orren korapilloa. Nortzuk diran gurean «burgesak»? Nortzuk langilleak? Askok esan oi dauanez, burgesak, dirua upelka dabe-ta, lanerako ardura barik bizi yatzuz Baiña, Eibar baten, esaterako, alogerean lan dagienak baiño be zoliago dozuz, bearrean, fabrika ta tailler baten buru ta jabeak. Bear izanik ez daukiela? Alan be lan egiten dabe, gizasemeari lan egitea dagokio ta.

—Dana dala, jakingo dozu nortzuk diran bear-izanean dagozanak. Jan eta jantzi egiteko, sendia aurrera aterateko, eskolatzeko ozta-oztan dabilzanak.

—Ba-dira olakoak, eta asko, mundu zabalean. Nortzuk dira proletarioak, itandu neutson nik be lengoan praille jakintsu bati; eta erantzun eustan: «Juxtu-juxtuan bizi diranak». Gutartean be ba-daukaguz olakoak; lan egin gura dauanak, alan eta guzti be, ba-dau nun lanari ekin; eta lanak dirua dakar. Bear aiña ez dala irabazten? Bear aiña lan ez dala egiten? Ori beste txori baten kantua dozuz. Baiña nun lan egin, gaur beintzat, ez da palta euskal errian. Naikoa dira gurean

kanpotik etorrita be, zintzo lan-egitiaz pixu ta etxe ederrak eskuratu dabezanak: bertokoak baiño geiago, bear bada, «euskaldunak jane-go, bear bada, eralgiten dau astan eta satsetan eralgiten dau anko» esanik. Ortaz, ez dozu alde andirik guk «burges» naiz «proletario» itzez bereizten doguzanen artean.

—Euskera, beraz, ez da burgesena bakarrik.

—Ez orixe! Gure euskera, izkuntza lez, guztiona dogu, goiko, beekota erdikoena. Izkuntzari, edozien errialdetan, erriaren agoak emon oi dautso; aurrekoegandik datorki gun izketa da, ta kitu. Iñoiz idatzi ta entzun dogu burgesak baztertu egin ebela gure euskera maitea: ez diñot egia ez danik, oraintsu arte beintzat: goi-goiko burgesak etziran asko arduratu euren izkuntzaz: batzuk bai, orraitino, gure literatura lekuko. Erdiko ta beeko burgesak, euskal antxiña-antxiñatik izan diranak, ezin geinkez ezelan be zisku orretan baste barik sartu, egia- ren kaltez litzake ta.

—Euskal errian, gure lege ta eskubideak zutik egozan bitartean, etzan izan burgeskeririk, ez proletariorik, esatekorik beintzat: danak genduzan mailla bardin-samarrekoak.

—Egia. XIX'garren gizaldirarte, gure asabak arrantzua, artzaintza ta lugintza eben irabazpide; arraiñetarako itxas-ontziak gure itxas-

bazterretako erritxueta atontzen ziran; mendiko txabola ingurueta artzaiñak bear ebezan tresna ta gaiñerakoak; baserrietan bertan, solo-lanerako bear ebezan traman-kulu ta lanabasak. Geroago sartuak dituzu gaur eroan bear ditugun istillu ta buru-austeak; beste lurraldeetan baiño latz tinkoago sartuak doguz gero. Ba-dakizu gaur zelako industri ta komertzioa dogun gure lau probintziotan.

—Gure izkuntza, euskera, barriz, guztiona dogu. Naiz amaren magalean ikasiona, naiz gero gogo bizitan aregaz jabetuona; naiz euskal lur onetan jaio giñanona, naiz kanpotik bortora etorriena.

—Ez izan dudarik, gazte. Dano-na dogu; guztiok ikasi, idatzi ta mintzatu bear doguna. Politika auzia bera saiets itxirik, auxe dozuguk egin bear doguna: ikasi ta itze-egin. Zer nai dogun be ez dakigula, lelokeri asko erausi oi dira gaur; edo obeto: jakiñaren gaiñean, pen-tsakeraz noberaren antzekoak ez diranai min emotearren. Gizon-ize-na merezi ete dabe taiu ontakoak? Onela itz dagienak iskilimin arro, kalaka ezjakin, txilin uts besterik ez dituzu.

—Eskerrik asko. Nasai naz onekin.

Aita Onaindia



LEMA, S. A.

Tornillo egillerik onena...
NOZKI!!!

LEMA, S. A.

Tornillo xuxenak bear baldin
badituzu...

LEMA, S. A.

Lantegi guzietan bear-bea-
rrezko diran tornillorik pi-
ñenak, egokienak eta bete-be-
tekoak... **EMENTXEN!!!**

LEMA, S. A.

LEMA, S. A.

Avda. Bilbao

Bidal-tokia (apdo. 107)

Urrutizkiña (3 bide) 718240

EIBAR-GIPUZKOA